BURUKO GAITZAK DITUZTENEN GURASOAK

·Zuek bai jakin!: Mari Jose Bermejo **·Elkarrizketa:** Bharat Martin barre-terapia maisua

·Izerdi patsetan: Emakumeak ere gizon proban **·Boteprontoan:** Aitor Lizarazu

Herri Aldizkaria

Otamotz

2009ko

apirila

146. alea

Herri Aldizkaria Otamotz.com

Albisteak, bideoak, argazki bildumak, gida, agenda, inkestak, eztabaidagunea, entzungaiak...
URRETXU ETA ZUMARRAGAKO ATARI DIGITALEAN BEHAR DUZUN GUZTIA AURKITUKO DUZU!

LURRALDEBUSeko istorioak

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 **Koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarrieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldua **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Azaleko argazkia:** Gotzon Aranburu **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarrieta **Publizitatea:** Iker Telletxea - 647 319 757 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea

04 **Hilabete honetako gaia**
Buruko gaitzak dituztenen gurasoak

08 **Elkarrizketa**
Bharat Martin, barre-terapia maisua

12 **Komikia / Egurra partitzen**

13 **Zenbat buru, hainbat aburu**
Zelai Arizti parke berriak lehen urtea bete du.
Zer iruditzen zaizkizu parkea eta inguruko baliabideak?

14 **Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**

15 **Gure gomendioa**

16 **Klik eta klik**
Josu Perez

18 **Zuek bai jakin!**
Mari Jose Bermejo

22 **Erreportajea**
Caritas, behartsuen alde lanean

25 **Argazki zaharra**

26 **Izerdi patsetan**
Emakumeak ere gizon proban

28 **Gure aholkuak**

29 **Literatura**

30 **Boteprontoan**
Aitor Lizarazu

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du.

Buruko gaixotasunez solasean, argi eta naturaltasun osoz

Besteen gaixotasunek elkartasuna pizten dute kasu gehienetan, baina buruko gaitzekin ez da halakorik gertatzen. Asko asaldatu egiten dira eta ez dakite nola jokatu gaixoekin eta euren senitartekoekin. Gaia tabu da oraindik. Eskualdeko kaltetu batzuen gurasoak Zumarragako kultur etxean elkartzen dira astero euren semealaben alde lan egiteko eta gizartearen ulermena lortzeko. Azken helburu honekin, Iñaxi Ikutzak, Bittori Arzelusek, Kontxi Ugartek, Jesus Mari Kerejetak eta Ana Mari Etxeberriak 'Otamotz' aldizkarian euren bizipenei buruz hitz egitea erabaki dute.

Ana Mari Etxeberria, Gema Lizarazu, Jesus Mari Kerejeta, Bittori Arzelus, Kontxi Ugarte eta Iñaxi Ikutza, Zumarragako kultur etxean. Argazkia: Gotzon Aranburu

Ana Mari Etxeberriak oraindik lan handia dagoela uste du. "Garai batean bezala, senitarteko askok isilean daramate euren arazoa. Zer moduz dauden galdetzen diedanean, ez dute hitz egin nahi eta oso ondo daudela besterik ez dute esaten. Nik, berriz, galdetzen didatenean, lasai asko botatzen dut sentitzen dudan guztia", azaldu du.

Hala, bere ingurukoek euren arazoa normaltasunez ikustea lortu du. "Hasieratik dena kontatu nien lagunei eta urduri ikusten nautenean berehala galdetzen didate zer gertatzen zaidan", aipatu du.

Iñaxi Ikutzak, ordea, gaitza ezagutu berri duten senitartekoek euren arazoa ezkutatzea ulertzen dute. "Guk urte asko daramatzagu kontu honekin eta dagoeneko ibilbide bat osatu dugu, baina heldu berrientzat gogorragoa da. Gainera, askotan droga kontsumoa dago tartean. Buruko gaitz guztien atzean beste patologia bat dago eta askori droga kontsumoaren ondorioz azalerazten zaio".

Kontxi Ugarte:

"Gizarteak baztertu egiten ditu eta lana aurkitzeko ere zailtasunak dituzte"

Buruko gaitzek duten irudiak ere ez du laguntzen. "Gehiago edo gutxiago, denoi kostatzen zaigu gai honi buruz hitz egitea. Izan ere, eskizofreniak oso irudi txarra du. Telebistan, adibidez, hilketekin lotu izan dute. Baina ez da hala, eskizofrenikoak normalean bere buruari min egiteko joera du".

Hori guztia dela eta, Bittori Arzelusek dioen moduan, elkarteen babesa oso garrantzitsua da. "Arazo berbera dutenek bakarrik ulertzen gaituzte, baina Ana Marik esan duen bezala, batzuei asko kostatzen zaie elkarteetara hurbiltzea. Asko gara, baina ez gaude oso elkartuta".

Jesus Mari Kerejeta urretxuarra iritzi berekoa da. "Ea jende gehiago elkartzen zaigun. Gure arazoak elkarri kontatzea oso lagungarria da. Gainera, elkarteek gaitzak hobeto ezagutzeko balio dute. Jendea beldurrik gabe etortzea nahi dugu: hileko hirugarren astelehenean elkartzen gara Zelai Arizti kultur etxeko gure egoitzan. Zumarragako zentroko kontsultara joatea tokatzen zaigunean herriko jende askok gure arazo berbera duela konturatzen gara. Bestalde, iaz Legazpin hitzaldi bat antolatu genuen eta 80 bat lagun hurbildu ziren. Guztion artean gure senitartekoak pertsona normalak direla ikusarazi dezakegu".

Bittori Arzelusek gaixotasun bat besterik ez dela kontuan hartzea nahi du. "Gaixoak dira, besterik gabe. Ez da ezer gertatzen. Tratamendu bat jarraitu behar dute eta kito". Dena den, Kontxi Ugarte brinkolarrak eurek eta euren senitartekoek behar baino baliabide gutxiago dituztela azpimarratu nahi du. "Gizarteak baztertu egiten ditu eta lana aurkitzeko ere zailtasunak dituzte. Horretaz gain, psikiatra gabezia dago, denbora gutxi dute euren arretarako, ez dago terapia espezializaturik, ez dituzte etxe tutelatu nahiko...".

Hori dela eta, senitartekoen lana ezinbestekoa da. "Senideok gaixoen eskubideen alde egin beharra dugu. Down sindromea dutenak lehen etxean ezkutatuta egoten ziren, baina dagoeneko eskubide asko lortu dituzte. Guk berbera lortu behar dugu. Dependentzia legeak, adibidez, ez ditu buruko gaixotasunak aintzat hartzen. Gure seme-alabek 10 urtetik gora eman ditzakete gaizki eta ez zaie lanik ematen. Krisia dela eta, sekula baino okerrago daude. Gureak tailerretan jendea kaleratzen ari dira. Gurasoen kontura bizi behar al dira beti?", galdetzen du Ikutzak. Bittori Arzelusek onena lan egitea dutela dio. "Lanean entretenituta daude. Bestela, ohean, sofan etzanda, jaten... ematen dute eguna".

Ana Mari Etxeberria:

"Garai batean bezala, senitarteko askok isilean daramate euren arazoa"

Izan ere, urtetan euren senitartekoez arduratu ondoren, euren gaitzen nondik norakoak nahiko ondo ezagutzen dituzte. Hasieran, ordea, dena zen ezezagguna. Kerejetak ederki gogoratzen du. "Ez dakizu gertatzen zaion hori zer den eta pasatuko zaiola pentsatzen duzu, baina

urteak joan eta urteak etorri eta ez zaio pasatzen. Gutxi batzuek bakarrik gainditzen dute gaitza. Oso garrantzitsua da tratamendua jarraitzea. Uzten dutenean, ordura arte egindako guztia izorratzen dute. Gure kasuan, pilulak hartu behar dituela konturatu da eta azken urte hauetan bera arduratzen da. Badaki hartzen ez badu gaizki jarriko dela", dio.

Arzelusen kasua bereziki mingarria da. "Lehenengo ama jarri zen gaizki, gero ahizpa eta orain alaba. Alabarenak ez ninduen ezustean harrapatu... Alaba gaixo izatea oso gogorra da, baina ordurako banekien gaitza nolakoa zen", azaldu du.

Kontxi Ugarterentzat, berriz, ezustea izan zen. "Eskizofrenia agerraldiak aipatu zizkidatenean, ez nekien zertaz ari ziren. Garai hartan oso gutxi entzuten zen halakoez. Orain gehiago hitz egiten da eta, nire ustez, ez da lehen bezain gogorra senitarteko batek buruko gaitza duela jakitea".

Bittori Arzelus:

"Batzuei asko kostatzen zaie elkartera hurbiltzea. Asko gara, baina ez gaude oso elkartuta"

Baina medikuntza arloan ere lan handia dago oraindik egiteko. "Garai batean denei pilula berberak ematen zizkieten, nahiz eta gaitz ezberdinak zituzten. Zer edo zer aurreratu da, baina asko dago egiteko oraindik. Medikuek ez dute gaixo bakoitzarentzat nahikoa denbora. Gaixoek badakite hori eta ez diete gertatu zaien guztia kontatzen, pilula gehiago emango dizkieten beldur baitira", dio Etxeberriak.

Iñaxi Ikutzak buruko gaitzak oso konplikatuak direla dio. "Nire semeak zortzi hilabete daramatza Aita Mennin eta eguneko 24 ordutan zaintzen dute. Hala, ere zalantzak dituzte: halako batean sendagaia ondo doakiola dirudi eta handik astebetera aztoratuta edo deprimituta ikusten dute". Etxeberriak eskanerrak egin beharko lizkieketela dio. "Hala neuronak nola lan egiten duten ikusiko lukete".

Zumarragarrak medikuek eta politikariek etxean gaixorik ez dutela nabari dela dio. "Batzuek bi minututan zer egin behar dugun esaten digute eta besteek baliabide asko ditugula, baina gaixoekin bizi behar da errealitatea zein den jakiteko. Hasieran ez dakizu nondik nora joan eta sekulakoak eta bi egin behar dituzu aurrera egiteko".

Elkarteak egoera hobetzeko borrokatzen dira. Solaskideak Agifes elkarteko kideak dira. "Zumarragako kultur etxean zortzi bat lagun elkartzen gara, nahiz eta Agifeseko bazkideak 25 bat garen. Bestalde, osasun mental zentrora joaten direnak askoz ere gehiago dira", azaldu du Kerejetak.

Guztien eguneroko bizitza gogorra dela diote. "Oso posesiboak dira. Beti atzetik ditugu. Bestalde, ezin diegu esan gaizki gaudenik, eurei kalte egiten baitie", dio Ugartek. Etxeberriak egun guztiak ezberdinak direla gehitu du. "Egun batean ondo daude eta hurrengoan gaizki. Ez dute jarraikortasunik". Iñaxi Ikutza legazpiarrak sendagaiek alde txarrak dituztela uste du. "Diziplina behar dutela esaten digute, baina oso pilula gogorrak ematen dizkiete eta horrek ahitu egiten ditu".

Gehienek gaztetatik daramate pilulak hartzen. Izan ere, gehienetan 18 urte ingururekin azalerazten zaie gaitza. Kontxi Ugartek lehengusu bat ere badu eskizofreniarekin, baina bere kasua ez da hereditarioa. "Psikiatrari lehengusuaren kontua aipatu nion eta horrek ez zuela zerikusirik esan zidan. Semea horretarako joerarekin jaioko zela eta 18 urte ingururekin arazoren bat izango eta eskizofrenia horrek piztuko zuela esan zidan. Hasiera batean neure buruari bota nion errua. Zer edo zer gaizki egin nuela pentsatu nuen. Zorionez, beste gurasoekin hitz egiteak asko lagundu dit", azaldu du.

Iñaxi Ikutza:

"Eskizofrenia hilketekin lotu izan dute, baina gaixoak bere buruari min egiteko joera du"

Ikutzak guraso guztiek euren buruari errua botatzeko joera dutela dio. "Zer edo zer gaizki egin dugula pentsatzen dugu, baina nerabezaroa oso txarra da. Gure seme-alabek gaixotasuna izateko berezko joera dute, baina zenbait eragi-

lek gaitza azalerazten dute: drogek, emozio gogorrek... Sekulako paranoiak sortzen zaizkie, baina ez dute medikuarengana joan nahi. Izan ere, ez dute uste gaixo daudenik".

Egoera asko okertzen denean, gaixoa psikiatrikoan sartu beharra dago. Ana Mari Etxeberria zumarragarrak garai batean gogorragoa zela oroitzen du. "Epailearen aurrean salaketa jarri beharra zegoen. Orain, zorionez, medikuak ematen duen agiria Ertzaintzari aurkeztearekin nahikoa da. Ertzainak gaixoak psikiatrikora eramatera behartuta daude".

Senitarteko bat psikiatrikora eramatea oso gogorra da, noski. "Eurei kalte egin nahi izatea leporatzen digute eta une oso latzak dira. Gainera, psikiatrikoa oso zahartuta dago. Orain ari dira berritzen", dio Ikutzak.

Egoeraren gordintasunaz argi eta garbi hitz egiten dute, gaiak tabu izateari utzi diezaion eta gizarteak normaltasunez begiratu ditzan. "Asko ez dira etxetik irteten, baina guk ez ditugu ezkutatuta eduki nahi. Gainera, eurak irteten ez badira, gu ere ez: bakarren bat eurekin gelditu behar da", azaldu du Kerejetak.

Dena den, ez da egoera dramatizatzearen aldekoa. "Jende askok du arazo hau eta askori ez zaie nabarmentzen.

Jesus Mari Kerejeta:

"Guztion artean gure senitartekoak pertsona normalak direla ikusaraz dezakegu"

Aurreko batean osasun zentroa joan nintzen eta batek *Joño, zu ere hemen!* esan zidan. Baietz esan nion, ez nion alabarekin joan nintzela eta bera baino azkarragoa naizela esango!, dio urretxuarrak umorez.

Buruko gaitzekiko dauden erreparoak direla eta, makina bat anekdota bizi izan dituztela diote. Ana Mari Etxeberriak, adibidez, osasun mentaleko zentroan ikusi duten batzuek aurretik pasatzen denean burua makurtzen dutela dio. Iñaxi Ikutzak, berriz, ezagun batek *hau al da gaixo dagoena? Normala da eta! Zein galanta!* esan ziola gogoratzen du.

Umoreari eusten badiote, neurri handi batean elkarri laguntzen diotelako da. "Guregana etortzen ez direnak batzuetan oso triste sentitu behar dira eta arazoak besteei kontatzea oso onuragarria da. Guk barrenak husten ditugu, bazkariak egiten ditugu...", dio Jesus Mari Kerejetak.

Gainera, senitartekoak ondo sentitu behar dira gaixoei lagundu ahal izateko. "Batzuetan hondoratu egiten gaituzte, baina gu ondo egotea ezinbestekoa da. Eurek berehala ikusten dute ondo edo gaizki gauden. Arazoak dituzte, baina ez dira batere tontoak", aipatu du, bukatzeko, Iñaxi Ikutza legazpiarrak.

ATE IREKIAK

etorriko zarela jakinarazi!

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA > AULA MAGNA
APIRILAK 25 - 11:00 larunbata
MAIATZAK 7 - 17:30 osteguna | MAIATZAK 21 - 17:30 osteguna 2. zikloa
ARRASATE-MONDRAGÓN Tel.: 943 73 96 29 // bguerenu@eps.mondragon.edu

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA > AULA MAGNA
MAIATZAK 14 - 18:00 osteguna
OÑATI Tel.: 943 71 80 09 // cgarate@eteo.mondragon.edu

MAIATZAK 7 - 18:00 osteguna | MAIATZAK 21 - 18:00 osteguna 2. zikloa
IRUN Tel.: 943 63 91 29 // ioiartzabal@bidasoa.eteo.mondragon.edu

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA > AULA MAGNA
MAIATZAK 9 - 11:00 larunbata
ESKORIATZA Tel.: 943 71 41 57 // sarrera@huhezi.mondragon.edu

Bharat Martin: "Poztasuna geure barnean dugu"

'Risoterapia' delakoa modan dagoela dirudi: Mairi elkarteko emakumeak ikastaro batean parte hartzen ari dira eta Zumarragako Udaleko Berdintasun sailak beste bat antolatu du maiatzerako. Eskolak Bharat Martin zumarragarrak emango ditu. 20 urte daramatza terapia hau bultzatzen eta beste batzuekin sortu zuen eskola aitzindaria izan zen estatu mailan.



Bharat Martin, barre batean, Mairi elkartearen egoitzan.

Nor da Bharat Martin?

Extremaduran jaio nintzen, baina lauzpabost urte nituenean hona etorri nintzen. Hala, ia bizitza osoa Urretxu eta Zumarragan eman dut. 16 urterekin merkatari lanean hasi nintzen. Saltzaile ibiltariak ginen eta denda ere izan genuen.

Nondik dator zure izena?

Nire nortasun agirian Esteban jartzen du, baina egungo nire izena Bharat da. Meditazio maisu batek jarri zidan. Ekialdeko izena da eta *argi-gerlaria* esan nahi du.

Nolatan hasi zinen terapien munduan?

Duela 23 urte depresio handi bat izan nuen eta horrek nire bizitza goitik behera aldatu zuen. Lanak gain hartu ninduen eta bizimoduz aldatzea erabaki nuen. Hasieran elikaduraz arduratu nintzen eta ondoren erlaxazioa eta yoga ezagutu nituen. Horrenbeste irrika dugun poztasuna gure barruan dugula ohartu nintzen. Barne poztasuna deritzana. Gizakiak kanpoan bilatzen du dena, baina bere barnean du behar duen guztia.

Nola ezagutu zenuen barre-terapia?

Ezberdinak ginela konturatu ginen: gertakari guztien alde ona bilatzen genuela. Barrearen bitartez zenbait gauza gertatzen zirela ohartu ginen eta yoga eta meditazio eskoletan barrea sortzen zuten ariketak lantzen hasi nintzen. Tolosako eskolako irakasle batzuk izan ginen estatuan barre-terapia landu genuen lehenak, Bartzelonako batzuekin batera. Emaztea eta semea ere honetan ari dira. Kontua ez da barre egitera mugatzen, bizitzan beste jarrera bat hartzea baizik. Esperientzia guztien alde alaia eta ona ikustea da kontua. Horrek ez du esan nahi negarrik egiten ez dugunik.

Zein da terapia honen jatorria?

Euskadin aitzindariak izan ginen, baina barre-terapiak milaka urte ditu. Indian eta Txinan barreari eskainitako tenpluak daude. 1960ko hamarkadan amerikar batek barrearekin mina arintzen zitzaiola ikusi zuen eta kontu hau bultzatu zuen.

Zer lan egiten duzue?

Azkenaldian Andaluziako ikastetxeetan eta Unibertsitate batzuetan lan egiten ari gara. Enpresei, elkarteei eta udalei ere tailerrak eskaintzen dizkiegu. Gainera, jendea ezagupen hau zabaltzeko trebatzen dugu. Gure eskolatik maisu handiak irten dira. Tolosan 19 lagun gara eta gure artean denetik dago: psikologoak, medikuak, irakasleak… Estatu osoan lan egiten dugu eta Araban, Sevillan eta Salamancan eskolak ireki ditugu.

Zer egiten duzue jendeak barneko poza aurkitu dezan?

Jolasekin, ipuinekin, musikarekin… ariketak egiten ditugu. Jendeak barre egitea eta ondo pasatzea lortzen dugu, baina ez hori bakarrik: tentsioa askatzen da, mugak hausten dira… Azkenean barrea bere kasa irteten da eta gizakia primeran sentitzen da. Barneko poztasunean murgiltzen da. Orduan, errazagoa zaigu gure bizitza ohitura aldaketekin hobetu daitekeela transmititzea. Hala, ikasleei etxean arnaste eta barre ariketak egitea proposatzen diegu.

Nola erantzuten du jendeak metodo hauen aurrean?

Duela 15 urte atera genuen foileto batean barrearen terapia eta norbere burua ezagutzeaz hitz egiten genuen. Azken honek erreparoa sortzen du. Batzuek sekta bat garela diote. Guztiz kontrakoa gara: gure helburua norbera izatea da. Mesfidantza ezagutza ezaren ondorioa da. Batzuk erreparoz hurbiltzen dira gugana eta erabat murgilduta bukatzen dute. Beste batzuk oso blokeatuta etortzen dira eta desblokeatzen direnean zorabiatu egiten dira. Urte askotan erreprimitu duten barre naturala ateratzen zaienean gertatzen zaie hori. Lehen sorospen emozionalen inguruko ezagutza dugu, batzuk, urte asko barre egin gabe eman ondoren, negarrez hasten baitira. Duela gutxi halako egoera bat bizi izan genuen psikologo batekin.

Estatu guztian lan egiten duzue. Zer diozu topikoez?

Andaluziar guztiak oso alaiak direla uste dugu eta ez da hala. Han hemen baino komunikazio eskasagoa dute. Itxiagoak dira eta gehiago kostatzen zaigu eurengana hurbiltzea.

Zure lanarekin lotutako anekdota asko izango dituzu…

Batzuek, sesioen ondoren, aspaldi ikusi gabeko senitartekoari deitzea erabakitzen dute. Beste batzuk oso pozik etortzen dira, baina maskara kentzen dutenean barruan tristura handia dutela ikusten da. Behin, barku batean gindoazen 300 lagunak barrezka eta elkarri besarkatzen bukatu genuen.

Nola ikusten duzu gizartea?

Mundu hobea egin daitekeela uste dut, baina norbera bere barrenetik hasi behar da. Besteak aldatu nahi ditugu, baina norberak bere burua aldatu behar du. 300 lagun inguruk euren bizitza goitik behera aldatu dute gure eskolari esker. Dena ezkortasunetik ikustetik, zoriontsu izatera pasatu dira. Guk geure bizitza nolakoa den azaldu eta besteena hobetzeko teknikak irakasten ditugu. Probatzen duenak, funtzionatzen duela ikusten du.



Herri Aldizkaria

Otamotz

Orain duzu aukera, bat egin gurekin!

ZINTZO-MINTZO ELKARTEKO BAZKIDETZA:

-Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.
-Zure ekarpenarekin proiektu hauek bultzatuko dituzu: Otamotz, Otamotz.com, Goierriko Hitza, eskualdeko telebista, Kafe Antzokia, Mintzalaguna, Bertso Eskola, Kantu Afaria, Liburu-lanketa, Gazte Lokala, Aisialdia Euskaraz, Normalizazio Plana, hizkuntza eskubideak, sentsibilizazioa...
-Urtean 25 euro.

OTAMOTZ ALDIZKARIKO HARPIDETZA:

-Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.
-Urtean 12 euro.

-Ekarri edo bidali postaz zure datuak honako helbidera:
Zintzo-Mintzo elkartea
Labeaga 12, behea (Goierri elkartearen ondoan)
20700 Urretxu
-Posta elektronikoa erabiltzea nahiago baduzu:
otamotz@otamotz.com

	ZINTZO-MINTZOKO BAZKIDE EGIN NAHI DUT
	OTAMOTZ HARPIDETZA ORDAINDU NAHI DUT
IZEN-DEITURAK	
JAIOTZE DATA	
HELBIDEA	
TELEFONO ZENBAKIA ETA E-MAILA	
EHNA EDO NA	
KONTU KORRONTE ZENBAKIA	

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxa 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

HARATEGIA URDAITEGIA

✆ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

MURUA
Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza,labana... zorrozketa

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

centro óptico
Javier Arratibel
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako tentsioaren neurketa - Graduatutako eta eguzkitarako betaurrekoak - Lentilak - Termometroak eta barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
✆ 943 72 54 84

Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com

Keros Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga, 35 **Urretxu** ☎ 943 72 41 60

BIONA

AROZTEGIA
Altzariak neurrira

☎ 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

ALEX-KIROLAK
alejandro albisua

☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga

PLAZAOLA
ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70

Lanbroa

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 72 36 52

Montajes e Instalaciones Eléctricas
HERCE
Elektrizitatea. M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

natural optics
URRETXU

Lurdes Rodriguez
Optiko-optometrista
Iparragirre,1-Urretxu
☎ 943 72 59 68
urretxu@naturaloptics.com
www.naturaloptics.com

asirauto

BIGARREN ESKUKO AUTOEN
ESKAINTZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu
943 72 59 22
659 67 89 79

ALTZARIAK
MERKA-UROLA
Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28
URRETXU

TABERNA
Iturreta
JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

PREMANK
KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO
PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU
ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA
ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
943 72 41 00
administracion1@premank.com

Construcciones
MENDIOLA
Labeaga, 9. Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com

Parmanki
Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 - **URRETXU**
☎ 943 72 25 13

belar-zain

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

Herri Aldizkaria
Otamotz

TOKI APROPOSA DUZU HAUXE
ZURE IRAGARKIA JARTZEKO

Iker Telletxea - 647 319 757 - beasain@iragarri.net



Jon Torner
Jon Ormazabal

Sekula ez omen da berandu

Marrones-i grazia handiegirik egin ez dion arren, inspirazioarekin, epeekin eta orri zuriaren aurka borrokan emandako orduak ontzat eman beharrean gaude. Izan ere, Madrildik iritsitako berri batek hilabete honetako gure piezak kutxu positibo bat izatea ahalbidetu baitigu. Goizean goiz jaikitzen dena, Jainkoak laguntzen omen du, baina gure kasuan, ohean goxo-goxo egoteak ere ekarri digu gurea, horrenbeste miseriaren artean, itxaropenerako leihotxo bat zabaldu baitigu.

Gauza da editorearen presioa jasangaitza bihurtzen ari zenean, Eitzako festetan Peiorekin pote pare bat hartzeko moduan izango garela jakin dugula, bide batez, gure enbajada bideratzeko aitzakia topatuz. Sekula ez omen da berandu, eta gure kasuan halaxe izan da, baina zoritxarrez ez da beti hala gertatzen. Izan ere, nork eta nola ordainduko dizkio Peiori, beste askori bezala, kendu dioten bizitzaren urte eta erdia? Nork eta nola konpentsatuko dizkie senide eta lagunei errepidean emandako ordu eta kilometroak? Hala izateaz pozten garen arren, nola da posible iazko otsailean gaiztoetan gaiztoenak zirenak, orain 10.000 euroko bermea ordainduta bat-batean zintzotu izana? Nora doaz urteetan eta urteetan fidantzetan euskaldunok ordaindutako sos horiek guztiak? Zergatik dio horrenbeste beldur jendeak Patxigoiti Lehendakaria izateari, azken hogeita hamar urteetan Azkuna, Imaz eta Urkulluren partidua agintean egon eta gero? Zergatik flotatzen diate barkuek Olegario?

Ez dakigu galdera hauen erantzuna jakiteko garaiz gabiltzan, baina irakurleren batek izango balitu, maiatzaren 10a da hurrengo entrega eguna. Polemika bilatzen dugun arren, gure gotzainak ez gaitu eta berehalakoan Jimenez Losantos bezala programarik gabe uzten.

Ongi etorri Peio!!!

Zelai Arizti parke berriak lehen urtea bete du.

Zer iruditzen zaizkizu parkea eta inguruko baliabideak?



Arantxa Azaldegi

Parkea oso ongi dagoela uste dut, baina eguzkiak gogor jotzen duenean estalki bat beharko genuke! Izan ere, udan egon zaitez hemen 30 gradurekin. Kultur etxea ere hementxe daukagu eta liburutegira joateko ohitura dut. Nik ez dut parkinga erabiltzen, baina alabak bai. Merkea dela dio.

Oihane Perez

Ia egunero etortzen naiz parkera eta umeekin egoteko toki aproposa dela uste dut. Gainera, toki oso egokian dago eta haurrek lasai jolas dezakete. Kokapena nabarmenduko nuke, hain zuzen ere. Liburutegia ere hortxe dago eta umeekin joaten naiz.

Mavi Fernandez

Kultur etxean lan egiten dut eta parkeak oso itxura ona duela iruditzen zait. Tarteka, denbora dudanean, umearekin etortzen naiz. Oso ondo dago, baina agian komunak jarri beharko lituzkete. Bestalde, errepide ondoko espaloian hesia jarriko nuke haurren segurtasuna bermatzeko.

Jose Luis Ruiz



Agian nostalgiko samarra izango naiz, baina garai bateko parkea faltan botatzen dut. Bere garaian idatzi bat aurkeztu nuen, zuhaitzak bota gabe parkea berritu zitekeela esanez. Parkingari buruz, zer esan… Ez du herrian dagoen arazoa konpontzen: autoen erabilera murriztu behar da. Kultur etxea, berriz, primeran dagoela uste dut.

Zubertsotan.net Web orriko I. Puntu Erantzun Lehiaketa

Doinua: 'Betroiarena', 'Bogart eta Bilintx' eta 'Dama askoren engainagarri'

Oier Aizpurua (Zarautz)

Gaua igarotzen da
konturatzerako,
baina bitarte hortan
gozatu bapo!
Zenbat taberna, pub ta
diskoteka antro,
neoizko argipean
dena da abstrakto...
Kinito ta zahato,
vodka eta Cointreau,
belar ta tabako,
dantza eta salto!
A ze gorputzaldiya
iganderako...

Ane Aierbe (Urretxu)

Buruak gauza bat esaten dit
eta beste bat bihotzak,
gorputzeko bi atal izanik
ezin inoiz izan hotzak.
Biak ditut nik horren ezagun
ta biak horren arrotzak;
buruak mugak jartzen dizkigu,
traba, beldur eta lotsak,
bihotzai kasu eginez gero
loratuko du larrosak.

Andoni Jaka (Zumarraga)

Buruak gauza bat esaten dit
eta beste bat bihotzak,
erabakirik ezin harturik
ze sentsazio arrotzak
zugan pentsatzen egun osoa
baina zertan egon lotsak
pausu aurrera beldurrik gabe
utikan izerdi hotzak.

Joxe Manuel Bereziartua

Hemen dira!

Azkenean badirudi aldaketa izango dela Euskadiko panorama politikoan. Lehendakaria *soziata* izango dugu. Eta horretan Basagoti eta lagunek lagunduko diote. Madrildarraren (ez da ez, Bilbokoa, askok pentsatu dezaketen bezala. Begiratu Wikipedian, bestela) asmoa ez da ez ahuntzaren gauerdiko eztula. Alde batetik Osakidetzan sartu nahi du eskua. Ez omen da zilegi medikuei euskara menperatu dezaten eskatzea. Sendagileen egin beharra gaixotasunak sendatzera mugatu behar omen da. Ondo dago jakitea!. Agian Polonian mediku on askoak egongo dira, eta bertatik ekarri ditzakegu. Hizkuntzarena ez da arazo izango, zeren hemen denak hitz egiten dugu poloniera eder bat. Medikuak Finlandiatik ekartzea ez litzateke hain erosoa izango, finlandiera ez baitago oso hedatua Euskal Herrian. EITBn ere ez daude lasai egoteko, Basagoitik eurekiko dauzkan asmoek Lope de Agirre Dalai Lamaren parean jartzen du. Ezin omen zaie utzi hitz egiten, publikoa den komunikabide batean, ETAren ekintzak kondenatzen ez dituztenei. Basagoitik Garzonen laguntzarekin azaldu beharko liguke ETAren inguruak non amaitzen diren. Baina ez dirudi lan erraza, zeren eginkizun horretan Baltasarri ez baitzaio lana agortzen. Eguraldiaren mapa ere susmagarria egin dute. Galtzak bete lan dauka Antonio Basagoitik. San Inaziok eman diezaiola argitasuna. Edo San Inazio ere ETAkoa izango da?



Guojian Chen

Poesía china elemental

Ohikoa euskarazko liburua aurkeztea bada ere, oraingoan gazteleraz idatzitako Txinako poesia jakintsu eta ederraren eskaintza dakarkizuet. Honako liburu hau denbora gutxi izan, baina kultura berezi eta erakargarri hau ezagutu nahiko luketen pertsonentzat egina dago. Ez hori bakarrik, naturzale zaretenok, hauxe litzateke zuon liburua. Txinatarrek hain maite dituzte olerkiok non buruz ikasiz errezitatzen baitituzte. Ez nau batere harritzen, hain dira ederrak. Nik bitxi bat aukeratu eta itzultzen dizuet: "Mendian elkar agurtu egin dugu / Ilunabarra. Adarrez estalitako nire atea ixten dut. / Berriz belarra berdatzen denean, / udaberriarekin batera bueltatuko al zara, adiskide?" Erosten baduzue eta kalean elkar ikusten badugu, esango didazue gustuko izan zaizuen. Izan atsegin!

Andoni Salamero

Clem Snide

Hungry bird

Gose da txoria, eta berriz hegan jarri behar. 2006an Clem Snide lantzen ari zen diskoa da *Hungry Saw*. Eef Berzeley taldeko buruak abesti horiek utzi eta bakarkako bideari ekitea erabaki zuen, arazo ekonomikoek eta talde barneko tentsioek eraginda nonbait. Bi lan atera zituen bakarka, baina ez zion luzaro iraun independentzia goseak eta taldeko habira itzuli da hiru urte igaro ostean. Folk, rock, country eta pop kantu gazi-gozoak, ahots bereziz kantatuak. Esperantza eta desesperantzaren arteko borroka kantuak, dotoreziaz emanak. Diskoa osatzen duten 10 abestien artean bitxikeriaren bat edo beste ere aurki daiteke: *Encounter at 3 AM* izenekoan, adibidez, *Pulitzer* saria irabazi zuen Franz Wright-en ahotsa entzun daiteke. Apirilaren 24an Bilbon izan dira.

Gorka Erostarbe



La clase

Laurent Cantet

Cannesko zinemaldian Urrezko Palmorria lortu zuen Laurent Cantetek, Françoise Bégaudeau idazlearen *Entre les murs* liburua moldatuz. Parisko institutu bateko erretratu soziologikoa lantzen du filmak, ikasturte oso baten jarraipena eginez. Ahituta dauden irakasleen eta hormonak dantzan dituzten ikasleen arteko elkarbizitzak eragindako arazoak dokumentatzen ditu. Gazteek, maiz, aurrez aurre topatzen dituzten hainbat arazo eta gatazka gainditzeko euren burua bakarrik ikusten dute, euren familia urrun sentitzen dutelako. Eta puntu horretan kokatzen da irakaslea, familia denbora tarte luzeetan eta eginbehar gehiegitan ordezkatzen duena. Filmak ikasgela erabiltzen du gaur egungo Frantziako tentsio kultural eta arrazialei buruz hitz egiteko.

ButaK 21 zineklub taldea


ETB







2007ko Aste Santuan Marokora egindako bidaian ateratako argazkiak.

Gotzon Aranburu

Mari Jose Bermejo: urretxuar eta zumarragarron igarlea

Mari Jose Bermejo bizilagun berezia da, Urretxu eta Zumarragan lan egiten duen igarle bakarra baita. Luze, zabal eta zintzo hitz egin du bere dohainaz eta herrian lan egiteak suposatzen duenaz.

Mari Jose Bermejo, lanerako erabiltzen duen bere etxeko gelan.

Non jaio zinen?

Urretxun jaio nintzen. Bertan eta Aramaion pasatu nuen haurtzaroa. Aita errioxarra zen, Egeakoa, eta ama Aramaiokoa. Hemen jaio ez bazen ere, aita ere hemen hazi zen. Gure etxea Urretxuko zaharrena zen: Belaustegi plazan zegoen eta duela gutxi bota dute. Denok hor bizi izan gara.

Zertan lan egiten zuten gurasoek?

Aita saskigile aritu zen Eitzan eta gero Orbegozon lan egin zuen. Ama gaztetan Donostiara bidali zuten zerbitzatzera eta bertan ezagutu zuten elkar.

Zenbat anaia-arreba zarete?

Hiru ahizpa gara. Zaharrena Ordizian bizi da eta bigarrena hemen. Ni gazteena naiz. Primeran moldatzen naiz eurekin. Amak elkartasunari garrantzia handia ematen zion eta beti oso harreman ona izan dugu.

Hirurak emakumezkoak izatea berezia al da?

Gu jaio aurretik amari bi mutiko hil zitzaizkion. Aita horrenbeste emakumere-

kin bizi behar izateagatik kexu agertzen zen batzuetan, txantxetan, baina berari ere asko gustatzen zitzaion familiako bizitza: gurekin jolasten zuen, kartetan jokatzen irakasten zigun, eskolako lanak egiten laguntzen zigun... Ama jokamoldeaz eta garbitasunaz arduratzen zen gehiago. Elkarren oso ezberdinak ziren, baina gustura errepikatuko nuke nire haurtzaroa: etxean barre asko egiten genuela gogoratzen dut. Dena den, nire bizitzako unerik gogorrenetakoak haurtzaroan bizi izan nituen. Bi urte nituenean, Aramaion, askan erori nintzen eta izeba batek ia itota aurkitu ninduen. Beste batean, Donostian desagertu nintzen. Izebak bisitatzera joan ginen eta irratian entzun zuten agertu nintzela. Irratira joan nintzenean, lasai asko aurkitu ninduten.

Haurtzaroaren zati handi bat Aramaion pasatu zenuela esan duzu.

Osaba-izebekin eta lehengusuekin egoten nintzen. Hango bizimodua zoragarria zen, hemengoarekin alderatuta oso ezberdina. Fruta hartzera joaten ginen, abereekin lan egiten genuen, ogia egiten genuen... askatasun handia genuen.

Non egin zenituen ikasketak?

Urretxuko mojekin. Oroitzapen oso onak ditut. Oso bihurria eta erantzun zalea nintzen. Ikasle txarra nintzen. Jolastea asko gustatzen zitzaidan, batez ere mutikoen jolasetan. Mojei madariak lapurtzen nizkiela gogoratzen dut. Garai hartan, halakoak belarrondokoekin ordaintzen genituen. Behin moja batek "Mari Jose, Erregeek zer ekarri behar dizute?" galdetu zidan gazteleraz eta nik "Una caja de bombones para los preguntones" erantzun nion. Sekulakoa eman zidan.

Zer ikasketa egin zenituen?

15 urterekin ez nuela gehiago ikasi nahi esan nien gurasoei. Kontabilitate apur bat eta makinaz idazten ikasi nuen eta lanean hasi nintzen. Arranz altzari dendan lan egin nuen ezkondu nintzen arte: hasieran Abenidan eta gero Legazpi kalean. Oso gustura aritu nintzen. Jendearekin harremanetan, asko ikasi nuen. Jendeak bere arazoak kontatzen zizkidan eta harremanetarako trebezia hartu nuen.

Ezkondu zinenean utzi zenuen.

Hala da. Orduan nire beste bizitza hasi nuen. Nire bizitza noria baten antzekoa izan da.

"Ginekologoari barruan nuen haurra hilda zegoen sentsazioa nuela esan nion eta hala zen"

Noiz eta nola konturatu zinen jendea laguntzeko dohaina zenuela?

Nik ez dut dohaina denik esaten, gauza garrantzitsua dela baitirudi. Bere lana egiten duen pertsona besterik ez naiz. Neska koxkorra nintzela zenbait gauzez jabetzen nintzen, baina gai honi buruzko ezer entzun gabea nintzen eta ez nuen horretan pentsatzen. Zer galdetu behar zidaten asmatzen nuen, adibidez. Nire lehen semea hil zenean, gauzak aldatu egin ziren. Bezperan semea hil behar zen susmoa nuela esan nion bizilagunari. Erditzea txarra izan zen eta haurra jaio eta ordu erdira hil zen. Aurrerago abortua izan nuen. Ginekologoari barruan nuen haurra hilda zegoen sentsazioa nuela esan nion eta hala zen.

Gogorra benetan...

Gogorrena nire bizipenak izan dira. Txantxetan hartzen saiatu nintzen eta senarrarentzat igarpen txikiak egiten nituen. Dena den, kontrol mental ikastaro bat egitera ere joan nintzen. Proba batzuk egin zizkidaten eta irakasleak honetan lan egin behar nuela esan zidan. Pixkanaka, jendeak nik esaten nituen gauzak gero gertatu egiten zirela jakin zuen eta niregana etortzen hasi zen. Lehen desagerpen kasua Ordesan erori zen gazte zumarragar batena izan zen.

Nola hartu zuten gainontzeko urretxuar eta zumarragarrek?

Jende asko errepidearen beste aldera pasatzen zen edota dendatik irteten zen nik begiratzeak beldurra ematen zielako. Amorrua ematen zidan, betiko berbera bainintzen. Une oro jendearengan pentsatzen ari nintzela uste zuten. Pertsona batengan kontzentratzen banaiz berari buruzko gauzak ikusten ditut, baina beharrezkoa denean bakarrik egiten dut. Nire lana da eta hoztasunez hartzen dut, nahiz eta desagertuekin asko sufritzen dudan. Erailak ere aurkitu ditut, baina ez dut nork hil dituen ikertzen. Hori ez da nire lana.

Nola laguntzen diozu zure etxera datorren jendeari?

Desagertuaren izena eta abizena eskatzen diet eta nondik atera den galdetzen diet. Lasai gelditzen naiz eta pelikula antzeko bat ikusten hasten naiz. Ez ditut datu asko behar. Are gehiago, ez zait desagertutako tokira joatea gustatzen. Izan

Mari Jose, senarrarekin eta bi semeekin, duela ia 30 urte Euskal Jaietan.

ere, halakoetan igarleak gainontzeko guztiak direla dirudi: dena begiratu dutela edo nik diodan tokira heldu izana ezinezkoa dela esaten didate.

Gaixoak ere laguntzen dituzu.

Gaixotasun larriak dituen jendea etortzen da normalean. Sekula ez diot inori esaten minbizia duela, medikuei errespetua zor baitzaie. Hori euren esku uzten dut. Ospitalean daudela, osatzen ez badira eta medikuak aurkitu ez duen zer edo zer ikusten badut, senitartekoei medikuei ikusi dudana esateko esaten diet. Kasu gogorrak bizitzea tokatu zait. Bati edo besteri senitartekoa dagoen ospitaletik ateratzeko eta beste batera eramateko esan behar izan diot. Makina kendu nahi zioten, baina nik bizirik ikusten nuen. Senitartekoa hil egin behar dela esatea ere tokatu zait.

Zer diote medikuek?

Eurek ere errespetua eta beldurra sentitzen dute. Batzuek nire lanean sinesten dute.

Bezero gehiago ba al dituzu?

Ebaluazio garaian etxetik alde egiten duten ikasleek lan handia ematen dute. Egun bakarrean zazpi guraso etorri izan dira, baina zorionez halakoetan beti bizirik agertzen dira. Halakoak gertatzea normala da: seme-alabak nota onak ateratzeko presionatzen ditugu, baina desagertzen direnean dena barkatzen diegu.

Nondik etortzen dira zure bezeroak?

Batzuk oso urrutitik, baita atzerritik ere. Batzuk famatuak dira eta odol urdinekoak ere baditut, baina ez zait izenak ematea gustatzen. Beraientzat lan egiten dudalako hobea naizela uste daiteke, baina niretzat bezero guztiek balio berbera dute.

Urretxu eta Zumarragako jende asko etortzen al da?

Bai. Hasieran ez zen hala, beldurra baitzuten. Batzuek nire begiradak beldurra ematen ziela esan izan didate. Nik aldatu direnak eurek direla esan izan diet.

Era guztietako bizilagunak etortzen al dira zuregana?

Bai. Askok ez diote emazteari esaten, eta alderantziz. Lanari, maitasunari, ikasketei... buruz galdetzen didate batez ere. Erabaki bat hartu aurretik nire aholkua nahi dute. Etorkizunari dagokionez, urtebeterako bakarrik igarri daiteke. Luzatzea ez da komeni. Pertsona bati hemendik bi urtera istripua izan behar duela esaten badiot, ni naiz bizitza kentzen ari zaiona. Ez diot lasai bizitzen uzten.

Bezero aberatsak dituzula esan duzu. Zergatik jarraitzen duzu Urretxun?

Telebista saio bat egitea eskaini zidaten, baina ni oso gustura bizi naiz hemen. Hemendik kanpo lan egitea erabakiko banu, familia utzi beharko nuke. Diru asko bidaliko nieke, baina bakarrik egongo nintzateke. Zertarako eduki ditut semeak? Eurekin egoteko. Ez dut diru asko behar, zoriontsua izatea eta besteei zoriontsu izaten laguntzea besterik ez dut behar. Madrilera, telebista saio batera, eraman ninduen taxilari batek ni bezalakorik ez zuela ezagutu esan zidan. Umila nintzela esan zuen eta nik panpina banintz bezala zaintzen ninduela erantzun nion: egarria banuen gelditu egiten zen, autoko eta tabernako ateak irekitzen zizkidan, nik nahi nuenean alde egiten genuen...

Telebistako zein saiotan izan zara?

Ia kate guztietan izan naiz. *ETB*ra ez nintzen joan: Patriciaren saiotik deitu zidaten eta ez nuen horra joateko gogorik.

Zer iritzi duzu telebistan agertzen diren igarleei buruz?

Errespetua diet. Ez dut eurengan pentsatzen. Jendeak eurengan fedea badu, onak izango dira. *Interviú* aldizkariak onena nintzela argitaratu zuen. Hiru pertsona aurkitzeko eskatu ziguten eta ni izan nintzen hirurak aurkitu zituen bakarra. Berriro aldizkarian irtetea eskaini zidaten eta ezetz esan nien. Ate asko irekiko zizkidatela esan zidaten, baina ez nuen nahi.

Urretxun gelditzea erabaki zenuen. Zer diote senarrak eta semeek?

Bere garaian lokal batean lan egitea pentsatu nuen. Hala, bezeroak ez ziren etxera etorriko eta etxekoek intimitate handiagoa izango zuten. Oso ondo portatu dira nirekin eta oso ondo moldatu dira nire jardunera. Semeek txikitatik bizi izan dute hau eta normala iruditzen zaie. Desagertu

Mari Jose Bermejo, erdian, Maria Jesus eta Maite ahizpen artean.

den norbait topatzea tokatzen zaidan bakoitzean, zortea opa didate.

Mutikoak zirenean, ez al ziren zelatatuko zenituen beldur?

Zelatatu ahal ditut, baina ez dut nahi. Euren bizitza gainontzeko guztiek bezala egitea nahi dut, nik ere bainuke nahi inork ni zelatatzea.

Erabiltzen al duzu zure dohaina zure onerako?

Mundu guztiari energia ona igortzea atsegin dut. Pozgarriena inork minik ez sentitzea litzateke. Ez dut nire familiari zer gertatuko zaion jakin nahi. Ez da hori jakiten saiatu behar, sufrimendu handia ekar baitezake. Onena gertatu behar dena gertatzea da. Erortzen bagara, altxatuko gara.

Bereziki eragin zaituen kasuren bat gogoratzen al duzu?

Gogorrena herriko jendearekin lan egitea da, kale egiteari beldur handia baitiot. Dena den, kasu asko Nafarroan gertatzen dira. Behin familia batek etxe bat erosi zuen, alabak gela huts batean argazki bat atera zuen eta argazkian gizon bat azaldu zen. Berari bakarrik gertatu zitzaion. Bertara joateko eta nik ere argazkia ateratzeko gogoarekin gelditu nintzen.

Zer iritzi duzu erlijioaz?

Jainkoan sinesten dut, gu baino handiagoa den norbait dagoela uste dut. Irakatsi diguten erlijioan, ordea, ez dut sinesten. Elizara joaten banaiz ez dut gauza handirik sentitzen, baina errespetuz jokatzen dut. Dena den, batzuetan *Aita Gurea* errezatzera joaten naiz. Gauero egiten dut otoitz.

Gai honekin bukatzeko, nolakoa izango da 2009a?

Itxura txarra du, baina dena baino okerragoa jartzen ari gara. Azkenean gustatu egingo zaigu... Langabezia beti egon da. Emango diogu buelta. Urretxu Zumarraga baino tristeago ikusten dut, baina ez dakit zergatik. Gure herriez hitz egiteko garaian, tentu handiz ibili behar dut. Duela urte batzuk autobus istripu bat egon behar zela esan nuen *Kaixo* aldizkarian. Oso argi utzi nuen ez zela gure herrian izango, baina hala ere guraso askok seme-alabak autobusean bidaltzeari utzi zioten.

Zer egiten duzu aisialdian?

Gurutzegramak egitea oso gustuko dut. Lanean denbora asko ematen dut, baina asteburuetan lagunekin egotea gustatzen zait. Jendearekin komunikatzea atsegin dut. Sekula ez nintzateke hiri batera joango. Urretxu eta Zumarraga ez nituzke aldatuko. Hasteko, ez dugu semafororik. Horrek askatasun handia ematen duela iruditzen zait. Bestalde, bizilagun guztiok elkar ezagutzen dugu eta adin guztietako jendearekin dut harremana. Hori oso polita da.

Ba al duzu bete gabeko ametsen bat?

Auzitegiko mediku izatea gustatuko litzaidake. Bitan deitu didate, baina hemen nengoen eta ez nuen Donostiara garaiz heltzeko modurik. Giza gorputza barrutik ikusteko eta ezagutzeko aukera bikaina dela iruditzen zait. Seguru aski, beste zer edo zer ere egiteke izango dut oraindik. Nire nahirik handiena inori kale ez egitea da. Nire lanean jendeari laguntzen saiatzen naiz, baina gehiago egin nahi nuke. Bestalde, nire semeei gehien amesten dutena lortzea opa diet.

Caritas: Urretxu eta Zumarragako behartsuen alde lanean

Batzuetan horretaz jabetu nahi ez dugun arren, gure inguruan ere miseria gorrian bizi den jende asko dago. Asteazken arratsaldean Zumarragako parrokiara joatea besterik ez dago horren lekuko izateko. Bertan, Caritaseko kideek janaria eta arropa ematen diete premia duten bizilagunei. Lucia Quesada arduradunarekin hitz egin dugu bertan egiten den lanaz.

Caritasen lan egiten duten herritarrak, arropategian.

Caritasen zeregin nagusia beharra dutenei harrera egitea dela dio. "Etortzen diren guztiak hartzen ditugu. Iaz 267 familia hartu genituen. Batzuk kide bakarrekoak dira, baina beste batzuetan lau edo sei seme-alaba dituzte. Asteazkenero 12 bat familia etortzen dira: herrikoak, ijitoak, marokoarrak, errumaniarrak, aljeriarrak...".

Ordutegia 18.00etatik 19.30era da, baina Caritasekoak 20.30ak aldera arte parrokian izaten dira askotan. Gainontzeko egunetan premia larria duen jendea bakarrik hartzen dute. Jende asko arropa bila joaten da. "Parrokia guztietan ez da zerbitzu hori eskaintzen, zonalde honetako jantzitegia Zumarragan dago. Hori bai, arropa ematen dutenek hartzailea ez dela umiliatu behar pentsatu behar dute. Izan ere, batzuetan jendeak ezertarako balio ez duen arropa ekartzen du".

Caritasen, arropa emateaz gain, botikak lortzeko eta euren herrietara itzultzeko laguntza eskaintzen zaie, soldata aurreratzen diete... "Inori dirua eman aurretik, soldata edo Udalaren dirulaguntza duten jakiten saiatzen gara. Izan ere, dirua ez da gurea eta ezin dugu besterik gabe eman. Ahalik eta hobekien banatzen saiatzen gara".

Lau kanpaina egiten dituzte urtean dirua lortzeko. "Gabonetakoa eta Korpusekoa izaten dira oparoenak. Gainontzeko biak irailean eta apirilean antolatzen ditugu, langabezian daudenei laguntzeko. Azken bi hauetan jasotzen den diruaren erdia elizbarrutiari ematen zaio. Hori dela eta, Gabonetan eta Korpusean herritarrek eskaintzen diguten laguntzarekin lan egiten dugu, batik bat. Dena den, laguntza nahikoa ez denez, elizbarrutiak dirua bidaltzen digu", azaldu du Quesadak.

Izan ere, gero eta behar handiagoak omen dituzte. "Lehen baino askoz ere jende gehiago etortzen da. Nik 14 bat urte daramatzat Caritasen. Lehen alargunen bat, langabezian zegoen bat edo beste... bakarrik etortzen zen. Egun arraza eta erlijio ezberdinetako jendea etortzen da. Bestalde, lehen ez zen banandutako edo tratu txarrak jasandako emakumerik etortzen. Gizartea asko aldatu da. Garai batean Udalek eta Aldundiak egun baino baliabide gutxiago zituzten. Zerga gehiago ordaintzen ditugu, baina eskubide gehiago ere baditugu. Zumarraga bezalako herri batean bertakook Caritasera etorri beharra izango bagenu, gaizki geundeke...".

Lucia Quesada:

"Asteazkenero 12 bat familia etortzen dira: herrikoak, ijitoak, marokoarrak..."

Hala, Quesadarengana eta bere kideengana kanpotik etorritakoek jotzen dute batik bat. "Caritasera azkenekoetan azkenak etortzen direla esaten da. Hemengoek garai txarretan familiaren babesa, langabeziako sorospena... dutela suposatzen da. Dena den, bertako batzuk ere etortzen dira: senarrarengandik banandutako emakumeak, tratu txarrak jasan dituztenak, langabezia-sorospena ez dutenak...".

Ahalik eta harrera onena eskaintzen saiatzen dira. "Funtsezkoena harrera ona eskaintzea da. Izan ere, hona datozenak gaizki sentitzen dira. Ez dute diru premia bakarrik, baita etsipena ere. Oso istorio tristeak ezagutu ditugu eta askotan lur jota irteten gara hemendik. Dagoeneko denetik ikusi dugu, baita aurrera egitea lortu duen jendea ere".

Premia handirik ez dutenak ere inguratzen dira. "Batzuek ez dakite nora jo eta beste batzuek, berriz, gehiegi dakite. Eskaleak ere etortzen dira. Horiei harrera eta arropa besterik ezin diegu eskaini, hemen ez baitugu aterperik. Lehen ogitartekoa eta Donostiara tren txartela ematen zitzaien, baina zoramena izan zen: ehunka etortzen ziren. Norbait euren zain ez badute, ez diegu dirurik ematen. Gainera gehienek soldata dute".

Dena den, azkenaldian ez direla eskale asko agertzen esan du. "Errumaniarrak daudenetik eskale gutxiago daudela iruditzen zait. Nire ustez eliza atarietako tokia kendu diete. Errumaniarren artean mafiak daudela uste dut: asko etengabe joan eta etortzen dira eta ez dakigu zertan ari diren".

Caritaseko kideek urte asko daramatzate jada lanean eta zaila da inork eurei adarra jotzea. "Berehala konturatzen gara nor datorren gu engainatzera eta nor ez. Engainatzera datozenek euren burua salatzen dute askotan euren jarrerarekin. Batzuk oldarkorrak dira eta hemen atea zabalik izaten dugu... Beste batzuek, berriz, premia handia dute eta herritarren dirulaguntza behar dugu. Izan ere, dena geroz eta garestiagoa da".

Otamotz.com atari digitaleko edukirik klikatuenak

IRAKURRIENAK

1. Gabiriako *Mihiluzeak* txapeldun Gaztelekun.
2. Peio Galvez zumarragarra etxean da.
3. Ehunka haur eta gazte Korrika Txikian.
4. Western giroko film laburra prestatzen ari da *KK in'zona Produkxions*.
5. Santa Barbarako jantokia eta taberna botatzen hasi dira.
6. Zumarraga eta Urretxuko Trikitixa Eguna aurkeztu dute.
7. Urola Goiena Triatloi Taldea Gernikako Nazioarteko Duatloian.
8. Cafes Aitona taldea koadrilen arteko herri kiroletan garaile.
9. Arcelor-Mittalek lan erregulazioa ezar lezake bere lantegi guztietan.
10. Merkantzia tren bat trenbidetik atera da Zumarragan.

OTAMOTZ TELEBISTAN AZKENAK

-Ongi etorri Peio!
-Argixaoko tuneleko lanen zulatze prozesua azkenetan dago.
-Urretxuko IV. Lore eta Landare Azoka.
-Santa Barbako taberna botatzen hasi dira.
-Abian da Euskal Herriko Itzulia.
-Koadrilen arteko IV. Herri Kirolak.
-Jose Ramon Elorza: *Jirabira*.
-Antzinako VI. azoka Zumarragan.
-Martxoan Bertsoa 2009: bertso musikatuak.
-Korrika 16 Urretxu eta Zumarragan.
-Liburu azoka Zumarraga eta Urretxun.
-Tren bat bidetik atera da Zumarragako geltokian.
-Korrika Txikia Zumarraga eta Urretxun.
-XXII. Bertso-paper lehiaketako sari banaketa.
-Martxoan Bertsoa 2009ko Gaztelekuko finala.
-Ikastolen arteko euskal-jokoak.
-Dizebiren artea ikusgai.
-*On stage zuzen zuzenean*.
-Joseba Gabilondo urretxuarrarentzat Erein saria.

INKESTAK

Ba al duzu Internetez erosketak egiteko ohiturarik?

-Bai: %51
-Ez: %46
-Ez nuke inoiz probatuko: %3



1956

Inauteriak Tolosan

Horra hor herriko koadrila batek duela 50 urte baino gehiago Tolosako inauterietan ateratako argazkia. Ezkerretik eskubira: Manuel Guridi, Marcos Zabaleta, Ramon Zabalo *Bisco*, Jose Antonio Zabaleta, Joxe Mari Azkarate, Manolo Urrestarazu eta Manuel Telleria.

Emakumeak ere gizon proban

Pixkanaka emakumezkoak orain arte gizonezkoentzat bakarrik ziren esparruetan tokia egiten ari dira. Urretxu eta Zumarragakoak gizon proban ere hasi dira. Hala, kirol honi izena aldatu beharko zaio: dirudienez hemendik aurrera zuzenagoa da gizaki proba deitzea. Gazteek hilabete pare bat daramatzate dagoeneko entrenatzen eta martxoa bukaeran lan egin zuten lehenengoz harriarekin. 'Otamotz' aldizkaria bertan izan zen.

Gizon proban ari diren nesketako batzuk.

Martxoko azken ostegunean bederatzi emakume elkartu ziren Zumarragako tren geltokian, eskualdeko gizon proba taldeek entrenatzen duten tokian. Ane eta Edurne Aierbe ahizpek, Maixabel Aranberrik, Junkal Hernandezek, Amaia Juanenak, Iratxe Lopetegik, Nagore Maizak, Jone Rebolek eta Agurtzane Zubillagak adi-adi jarraitu zituzten Victor Charro eta Toribio Kerejeta prestatzaileen aginduak. Beroketa ariketen ostean, harriari lotu eta lehen tiradak osatu zituzten. Ordurako Zumarragako taldeko mutilak bertan ziren eta nesken lana arretaz jarraitu zuten.

Neskak egindako lanarekin gustura gelditu ziren, baina oraindik ez dute erabaki non eta noiz estreinatuko diren jendaurrean. "Oraindik asko entrenatu behar dugu, baina uste baino hobeto aritu gara. Hori bai, jakizu hurrengo egunetan gerria nola izango dugun!", aipatu zuten txantxetan.

Neskek oraindik ez dute erabaki non eta noiz estreinatuko diren jendaurrean

Kirol honek indar handia hartu du eta neskak gizonezkoen saioek piztu duten ikusmina ikusi ondoren animatu dira. "Gizon probaren bultzatzaileek emakumezkoen taldea osatzea gustatuko litzaiekeela esan ziguten eta animatu egin gara. Gutako gehienok jarduera hau egiten duten mutilen senitartekoak edo lagunak gara", diote.

Maiatzaren 1ean Legazpin saioa izango da eta antolatzaileek neskek ere parte hartzea nahi zuten. Hauek gonbiteari uko egin diote, ordea. Izan ere, oraindik jendaurrean aritzeko "goizegi" dela uste dute. Toribio Kerejeta prestatzaileak emakumezkoak aurki estreinatuko direla uste du. "Indarrez ondo ikusi ditut eta argi dago euretako batzuk kirolari finak direla. Nire ustez denbora gutxi barru trebatuko dira. Hala, hurrengo aukera suertatzen denean arituko dira jendaurrean".

Maiatzaren 1ean, 19.00etatik aurrera, Goierri Garaiko lau taldeek saioa jokatuko dute Legazpiko Kale Nagusian

Gizon probak sekulako indarra hartu du Urola Garaian. Lehen saioak 70eko hamarkadan izan ziren eta duela bi urte garai hartan kirol hau egin zutenetako batzuek berreskuratzea erabaki zuten. Orain arte tiraldi gehienak Zumarragako Euskadi plazan izan dira: 12 lagunez osatutako taldeek 1.700 kiloko harria arrastaka eraman dute.

Aro berriko lehen lehia 2007ko abendua hasieran jokatu zen: Urretxuko taldeak Zumarragakoari irabazi zion. Urtea amaitu aurretik errebantxa izan zen eta zumarragarrek urretxuarrek eta Ezkio-Itsasokoek baino plaza gehiago osatu zituzten.

Iaz, abuztua bukaeran, ezkiotarrek itsasoarrei irabazi zieten Itsasoko San Bartolome jaietan. Abenduan, berriz, legazpiarrek lehenengoz euren taldea ere lehian ikusteko aukera izan zuten. Urola Garaiko lau taldeak nor baino nor aritu ziren eta urretxuarrak nagusitu ziren.

Taldeak zazpi lagunekoak izango dira eta 925 kiloko pisua duen porlanezko blokea eramango dute arrastaka

Azken saioa otsailean jokatu zen. Zumaiako arraunlariek plazako errekorra hautsi zuten, zumarragarren aurkako lehian. Aipatu bezala, hurrengo norgehiagoka Legazpin izango da: maiatzaren 1ean, 19.00etan hasita, Kale Nagusian.

Oraingo honetan taldeak zazpi lagunekoak izango dira eta 925 kiloko pisua izango duen porlanezko blokea eraman beharko dute arrastaka. Kontuan izan behar da parte hartzaileak hutsaren truke aritzen direla eta guztiek ez dutela beharrezkoak diren entrenamendu guztietara joateko astirik.



Alex Areizaga

Informatika

Wifia

Badirudi jendea oporretatik itzultzen hasi dela. Horien artean Osaba eta gaztetxeko kideak. Hori dela eta, wifiaz jardungo gara opor motz hauen resakan. Wifiaren inguruan mito asko zabaldu badira ere, egia da, tresna arriskutsua izan daitekeela segurtasunaren aldetik. Askok ez ditugu agian pasahitzak erabiliko gure etxeetako wifi sareetarako eta honela, ateak irekita uzten dizkiegu internetez apur bat besterik ez dakiten gure bizilagunei, gure sarea erabili eta bide batez, gure informazioa lapurtu diezaguten. Segurtasuna bermatzeko WEP edota egun atzematen zailagoa dena, WPA pasahitzak izan ohi ditugu gure modemetan. Hala ere, egia da, gure bizilaguna abila bada, hauek ere ken diezazkigula (nahiz eta hau nahikoa konplexua den). Hala eta guztiz ere, zuen sareak elkartasun keinu gisa ireki egin nahi badituzue, www.fon.com helbidean hau era seguruan egiteko modua aurkituko duzue, wifi sare erraldoia eraikitzera bidean doan komunitate foneroarekin.

Miren Arrieta

Osasuna

Alergiaren kontrako pilula

Aurten, beste behin ere, irrati eta telebistan esan eta esan ari dira aurtengo udaberria oso gogorra izango dela polenari alergia dioten pertsonentzat. Albiste honen ondotik, aurten alergiaren kontrako txerto berri bat atera dela esan dute, gainera injekzioa izan ordez pilula moduan. Beraz, alergiko guztiak beren medikuarengana joateko gomendioa egin dute arazo hau konpontzeko. Egia da aurtengo otsailean gramineren polenaren aurkako pilula merkaturatu dutela, baina ez da hain magikoa. Lehenik eta behin graminearekiko alergia baieztatu behar da eta beste aldetik pilula egunero hartu behar da hiru urte osoz, eragina egin dezan. Helburua, gainera, ez da alergia erabat saihestea, izan ere alergiaren ondorio gogor eta kaltegarriak dituztenentzat diseinatua baitago. Beraz, erreakzioa gutxitzea da helburua. Esan dezakegu antihistaminikoekin beren sintomak kontrolatzen dituztenei eta graminearen polenari aparteko beste alergia bat dutenei ez diela merezi pilula hau hartzea.

Hiru ahotsak

Baietz erantzun dit.

Egia da gertatu zitekeela banekiela. Baina atzo ez nekienez ez nengoen, gaur banago badakidalako. Eta zer sentitu ote behar dut orain? Berria da hau. Jertsea altxatu dut, sabelari begiratu diot eta atzoko sabel bera dela iruditzen zait, zilborrak itxura arrarorik ez du; baina atzo, konturatu naiz, nire sabelari une batez ere ez nion erreparatu. Gaur garrantzitsua da bat-batean kobazulo bihurtu delako, atzo ere kobazuloa zen arren. Begiratzen diot eta *Tengo un pasajero, dentro de mi cuerpo* abestia etortzen zait burura, Parálisis Permanenterena, etengabean. Pozik nagoela esan beharko nuke. Atzotik gaur bitartean zer aldatu den ezin dudala neurtu uste dut eta horrek ikaratu egiten nau.

Mezu bat iritsi zaio: "ernalduta". Irribarre batek marraztu du bere aurpegia eta harrotasunaren koloreak bere masailak tindatu ditu bere buruari "egin dut" esango balio bezala.

Ez al zen hau begizta arrosadun kamisoi zurien garaia? Emakumeak eder, zoriontsu eta alai gauden garai emankorra? Erdizkako egia da hori. Ni arraro sentitzen naiz, prediktorrarena baino froga gehiago behar ditut behin ere botaka ez dudalako egin, nire sabela hazi bada ez dudalako nabaritu eta nire titien tamainaz gain, egoera honen beste sintomarik ez dudalako. Bakarrik arraro sentitzen naiz, arraro eta bakarrik. No woman no cry. Negarrik ez, ez da hori.

Zygfggffdgdgggfgdgd gdgdd dfgdgdd sbvvcvbcbbbvbcbc bcbxxc -.,mnb cvcc xxzzz<hgfffdddssaa llkjjjv bxbbcbx v,mnnnn nnnnbvcxz<n

Egun hauetan ama izango den hori etxera itzuli den bakoitzean ezer ere ez da bere gustura egon. Orroka ibili da: hau ez dago ondo hemen grrrrr, hori gaizki garbituta dago, ez dago ezer ere hozkailuan, nik egin behar al dut dena? Grrrrrrrrr. Une batez dena egina zuela uste izan zuen bob bigarren mailako aktorea nahastuta dago. Harrituta begiratzen dio. Ondokoari dagokionez, deus ere ez du ondo egiten egun hauetan. Bizikletan joango bailiran besarkatzen du ohean lotarakoan, baina bera urrundu egiten da, espazioa uzten du bien artean, horrela eroso ez dagoela esaten dio. Oso urruti dagoela iruditzen zaio bigarren mailan gelditu den aita izango denari. Egia da, urrun dago, etxeko edozein eskinatan dabil bere gorputza katu bat balitz bezala miazkatzen. Bob ez dagoenean berekin egon nahi duela esaten dio eta ondoan duenean ez du berekin egon nahi. Beste balizko bat ere badago, Bob bere kasa badabil molestatu egiten da.

Beldur txikiak ditut, gainetik ezin ditut kendu, inori ez diot esan nire bidaiariarena, gertu-gertukoei baino ez. Ez dakit zer izango ote den hobeto, bederatzi hilabetetan apenas froga bat egitea ala egoera honetan egutegian hainbeste data borobildu beharra, gaixo nagoela ematen du edo, akaso, neurotika hutsa naiz. Itxarongelarik ez dago, korridorea luzea da, ilaran dauden aulkietako batean eserita nago, lehenengo ekografia egiteko zain gaude, bi orduko atzerapenarekin jada. Korridore honek inolako intimitaterik ez du. Nire izena esan dute, banoa barrura, bera oraindik ezin da sartu. Ekografia egiteko tresna falikoa sartu didate azpietatik eta orduan irudia: eskuak, burua, hankak, egina dago bere txikitasunean. Eskua emaidazu, emozionatu egin gara, haurdun nago.

Vvbvcx<<<xxcvbnmm,.-;)

Miriam Luki

Aitor Lizarazu

Larreaga baserriko Aitor Lizarazu urretxuarrak Juan XXIII ikastetxean egin zituen ikasketak. 16 urterekin lanean hasi zen, zoruak lijatzen. Zazpi urte eman zituen lan horretan. Orain Iberdrolarentzat aritzen den enpresa batean lan egiten du. Aspalditik korrika egitea du bere zaletasun handienetako bat. Donostiako maratoia 3 ordu, 3 minutu eta 50 segundutan egin zuen eta Behobia-Donostia bederatzi aldiz osatu du. Duela bederatzi urte, berriz, artzain txakurra erosi zuen. Ordutik erakustaldiak eskaintzen ditu.

Zer izan nahi zenuen umetan?
Ez dakit. Ez nuen horretan pentsatzen.
Aisialdian zer egitea atsegin duzu?
Korrika egitea, mendira joatea, txakurrarekin ibiltzea eta familiarekin egotea.
Bizitzeko toki bat?
Mendia. Kalean baino askoz hobeto egoten da. Lasaiago bai, behintzat.
Zein txakur mota atsegin duzu?
Nik dudana: Border Collie. Hemengo arraza ere atsegin dut.
Egia al da txakurra gizakiaren lagunik onena dela?
Bai. Ordu asko ematen ditugu elkarrekin eta ez du sekula kale egiten.
Poliziei txakur deitzen zaie.
Txakur mota asko daude. Batzuk arriskutsuak dira eta horiek badute polizien antza.
Lasterketa bat?
Behobia-Donostia, giro oso ona egoten baita ibilbide guztian. Gasteizkoa, berriz, oso hotza iruditu zitzaidan.
Zein da zure ametsetako lasterketa?
New Yorkeko maratoia oso gustura egingo nuke.
Korrikalari bat?
Lehen, Diego Garcia.
Ilehoriak ala beltzaranak?
Biak. Aukera pixka bat egon behar da...
Egindako azken oparia?
Lore sorta bat.
Eta jasotakoa?
Poltso bat.
Data bat?
Ezkontza eguna: irailak 18.
Neska eta mutil izen bana?
Araitz eta Aizpea, alabenak, eta Mikel.
Eta txakur izen bat?
Nireenak: Xerpa eta Ekin.
Zein egunkari irakurtzen duzu?
Gara irakurtzen dut gehien, baina besteak ere begiratzen ditut.
Gustuko telebista saioa?
Ez dut telebista asko ikusten, baina txakur hezitzailearen saioa ahal dudan guztietan ikusten dut.
Bereziki gorroto duzuna?
Gran Hermano eta antzekoak.
Liburu bat?
Ez dut liburu asko irakurri. Ez dut astirik eta ezta gogorik ere.
Pelikula bat?
Braveheart.
Soinu bat?
Trikitixarena.
Usain bat?
Arrosarena.
Janari bat?
Gazta.
Ura ala...
Kalimotxoa.

Urretxu-Zumarraga Ikastola

Garaialde Lizeoa

Goi mailako Heziketa Zikloetarako nahiz Unibertsitaterako prestakuntza egokiena

BATXILERGOA - BATXILERGO FORMATIBOA - D EREDUA

ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIA - GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

Aukerak: Zientzia eta Teknologia, Osasun Zientziak, Giza Zientziak eta Gizarte Zientziak

ZIG (Hezkuntza Berezia)

www.uzikastola.net

lizeoa.urretxu@ikastola.net

Labeaga kalea, 25 - Urretxu - ☎ 943 72 21 12

Euskadi

Construcciones
MENDIOLA

Labeaga, 7
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Tf. 943 72 05 11
Fax: 943 72 44 10
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com



Legazpiko Olazabal Institutuaren ondoan
6 chalet adosaturen eraikuntza eta salmenta

Etxebizitzen eraikuntza
Industria pabilioiak
Urbanizazio lanak

ZUM Edizioak